



BARREN
TOKIKOM

**Makila eta kopla
ate joka**

Elgoibar-Arreiturre Institutua

Zatoz!



2016-17 ikasturterako DBHko aurrematrikula epea zabalik urtarrilaren 25etik otsailaren 5era



Elgoibar Arreiturre BHI

San Roke, 11
Tel.: 943 748 397
E-posta: www.elgoibarohi.eus



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8
Tel.: 943 740 879
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



DUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA
EDUKITZEAN
KIBIKETA GARA

Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Aholketarako orduak: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoiz indegi zerbitzua daukagu.
Dena ordua hartzeko.



CORDON
VILARCHAO

San Roke, 7 beheko
Pol. Glaso - Olasepe kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 748 570

DEKORAZIOA

Karpo eta banelo estaldura
Zaluzko ezarria
Lakadura eguzi, aluminio, PVC.
Pintura ekologiko



Baserriz baserri, kantuan eta eskean



ELGOIBARKO IZARRA SANTA AGEDA BEZPERAN

- Otsailaren 4ean, osteguna, eguerdiko 14:30ean elkartuko gara Kalegoen plazan.
- Gaueko 21:30ak aldera arte jardungo dugu kantuan eta eskean. Gero, Aiastiako soziedadean afalduko dugu.

Otsailaren 1a izango da izena emateko azken eguna:
943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Laguntzaileak:





IBON SERRANO LASA



“Jose Azurmendiren saiakera mardula amaitzen nabil. Dozena eskas irakurleren panteoian eta ‘sasi-intelektual-gerriko-laranja’ eskuratzeko itxaropena dut”

Gure gizartearen patuari buruz goibel nauzu, Arkaitz. Erromantikoek *Weltschmerz* omen zeritzoten sentsazio honi: errealitatea moldakaitza izatearen etsipena. Gaztetan argi izpiak banekuskien tune-laren bestaldean, egun, ipurtargiak ere desagertzeaz omen. *Mainstream* panoraman behintzat ez da pizgarri zipitzik niretako. Beraz, anakoreta bilakatzearen arriskuaz, afizio txikietan aurkitzen dut babesleku izpirituala.

Tristea badirudi ere, atmosfera lanbrotsu eta malenkoniatsu honetan barne bidaia paregabeak eta ustekabeko harri bitxiak aurkitzen dira.

Hor nabil “*Hizkuntza, Arraza, Nazioa*” Azurmendiren Euskadi Sari saiakera mardul eta bikaina bukatzeaz. Lorpenaz, dozena eskas irakurleren panteoian sartu eta “sasi-intelektual-gerriko-laranja” eskuratzeko itxaropena dut.

1871n gara. Prusiak Frantziari Alsazia eta Lorrena eskualdeak egotzi dizkio gerran. “*Intelligentsia*” frantziarra, anputazioaz asaldata, burutsu jartzen da garaiko idatzi eta

hitzaldien bitartez frantziar nazio eredu goraipatuaz alemaniarra azpiratzen. Borondate eta hiritartasun printzipio gorenak (Fr.) *versus* nazio etnikoaren itxikeri eta atzerapena (Al.). Ba, usteak ustel! Azurmendik topiko hauek maisuki desmuntatzen baititu, historia, filosofia eta pentsamenduaren lan txundigarria zabalduaz.

Harrigarria estatuen naziotzea (Fr., Esp.) eta nazioen estatutzea (Al.) eman zen garaioetako euriok zein lohituak dauzka-gun egun. Eliteek nola txertatu dizkiguten, errepikapen eta zapalketaren poderioz, hainbat artificio teoriko zalantzarri egi absolutu eta objektibo bezala. Zein txikiak garen historiak moldaturiko egitura oro-boteretsuen aurrean.

Ondorioa: arima itxaromendu baino, *Weltschmerz* delakoan are gehiago murgildu nau irakurketa honek. Alkohol lurrintetan ito beharko atsekabea.

Baina, alkohola esan al dut? agian oker naiz. Arkaitz, gazte eta Vodka likidoaren belaunaldikoa zarenez, zerbait aldatu “ahal-duzuela” uste duzu?



ARKAITZ IRURETA ARRIETA

“Gaitza dauka Ahal Duguk ezer aldatzia, errauskailluarekin ikusi dan bezela, merkatu ingeniariartzako gerriko illunenen mass medien boteria izugarrixa dalako”

Terribli za, Ibon! Guri gaztetako pagiak *clarisidra* edateko ematen zigun. Orainguek konbinatuak edaten ditue. Aukerak zabaltzian, edari askorekin konbinatu Ahal Dugu bozka, kar kar kar... Barkatu baiña gongorismua ez da neria. Klaru esaten, gaztetan gorrixa sagarduakin, edo ezkerria, abertzaletasuna eta ingurugirua uztartzen genittun. Eta orain iñoiz baiña biharrezkoagua dala ikusten dot. Naturia zaintziaren bide-ragarritasun ekonomiko eta soziala zenbakixekin defendatzen dot, globalki pentsatuaz, lokalki lana egiñaz. Goi mailako politikak aldiz merkatuen mesedetan dabilta, herritarren kontrako politikak eginaz, eta erretiratuzian aulki birakarixetan esertzen.

Gogor sartu da Ahal Dugu eta batetik poztu naiz. Gaitza daukate politikoki ezer aldatzia, Gipuzkoan errauskailluarekin ikusi dan bezela, merkatu ingeniariartzako gerriko illunenen mass medien boteria izugarrixa dalako. Halere, sozialki Espainistanen pentsa-

eziña zan kolore bereko bi alderdixen boteria apurtzea, eta hori lortu dabel!

Baiña abertzalioentzat kontrako efektua lortzen dabela pentsatzen dot. Herrialde katalanetan, adibidez, abertzale ez diranak ere erabakitze eskubidiaren alde daudela sumatzen dot, eta akaso Ahal Duguk kontrakua lortu dezake, abertzale diren batzuk egoera honetan eroso egotia, hau da, jazarpenak lortu duan kontrako efektua.

Baiña ekonomiari dagokionez, espero daben eragiña ez dala beteko pentsatzen dot. Gaztiekin konbinatuak hartzen ditue poltsikuan dirua daukelako. Horri ekonomian “ilusio monetarioa” deitzen zaio baina datu ekonomikoeri so, zorpetze maila inoizko handiena dela irakurtzen dot.

Hor dago burrukia, gorri-sagardo nahastea debituan, edo bozka-konbinatua kredituan, zer nahixago dabe gaztiekin?

IÑAKI ODRIOZOLA

Elgoibar 1936 taldekoa



Igande goiza, neguko eguraldi ona, eguzki-izpiak pinu artetik. Aurrean daukat Kalamua, ezkerrean Morkaiku; harantzago Karakate gaina. Alboan Zirardamendi.

Soartegainetik begira nago, bi haitz handiren gainean. Atzean, Etxeberriko koadrila lubakia zulatzen. Ez da 1937ko apirila, 2016ko urtarrila baizik. 79 urte beranduago ari gara, lubaki berean lurra ateratzen.

Sei hilabete zeramatzaten Kalamuako frontean, ez aurrera ez atzera, eta Estatu kolpea eman zuten faxistak, erreketek, falangistak eta armadako soldaduak Elgoibar, San Migel eta Urkaregi hartuta zeukaten.

Espainiar kolpistak Bizkaia alderanzko bidea zulatzen ari zela-eta, eibartar erre-

publikanoek Soartegain hartzeko mugimendua egin zuten, faxisten indarrak sakanatu eta indargetzeko asmoz.

Soarteko gaina hartu zuten baina ezin iraun. Hiru beasaindar geratu omen ziren azkenak, eta faxistek bizirik harrapatu zituzten. Bi haitz haien azpira eraman, eta fusilatu. Elektrizista elgoibartarra zegoen inguruan. Han ikusi zituen lurreen erailda. Hurbildu zen, eta euretako batek lepoan zeraman identifikazio xafila ikusi, eta hartzea pentsatu zuen.

*“Beste hezur bat
atera dugu, saihets bat
izan daitekeena”*

Ezin izan zuen. Faxistak sumatu zituen lubakitik hurbiltzen, palak eta lanabesak eskuan. Ihesi joan zen, baina ikusitakoa ez zitzaion inoiz ahaztu. Urteak joan ahala, Kalamuatik jaisten ziren bakoitzean, semei esaten zien: “Haitz haien azpian daude hiru gudari lurperatuta”.

Goizeko hamaiak aldera hezur an-

tzeko egur bat atera dute Etxeberriko bi lagunek, lubakiaren 5. metroaren inguruan. Edo egur antzeko hezurra da, kontuz! Gorde egin dugu, badaezpada.

Ez genbiltzan gaizki. Beste hezur ilun bat atera dugu, oraingoan garbiagoa, saihets bat izan daitekeena. Lurra umela dago, eta 79 urte eta gero, erabat hondatuta egongo da. Kontu gehiagorekin, gero eta polikiago, halako batean, kargadore bat, balaz beteta: bi, hiru, sei, zortzi bala. Eta alboan hortzordeak. Urrezko hortz eta guzti. Burezurraren hutsunea.

Gelditu gara. Arantzadiko Forentseari deitzeko ordua da. Beroa dut bizkarrean, baina hotzikarak hartu nau. Pozak, eta aldi berean, tristurak. Amorrua eta etsipena. Negargura eta irribarrea. Besarkadak eta malkoak.

Igande goiza, neguko eguraldi ona, eguzki-izpiak pinu artetik. Aurrean daukat Kalamua, ezkerrean Morkaiku; harantzago Karakate gaina, alboan Zirardamendi. Joan zen igandean izan zen, Soartegainen. Askatasunaren aldeko borrokan hildakoak oraindik lur azpian ditugu. Arraioa!



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Suskegaitzaren laguntzaKalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eusPublizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar
1936-2024

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enertzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► POLONIAKO ARGIAK, HERRI ESKOLA

Poloniako Argiak. Herri Eskola osatzen dugunok, eskerrak eman nahi dizkizuegu Poloniako Argiak proiektuan parte izan zareten guztioi. Berezi Udalari eta Udaleko langileei, gurekin bat egiteagatik eta egin duzuen lanagatik. Elkarlanaren emaitzak ikusgarriak izan dira-eta.

Bestalde, herri osoari eta plazan jolasean aritzen diren haur guztiei, gure argi kutxak hain ongi zaintzearen. Ziur geunden denon artean zainduko genituela eta guztion gustukoa izango zela plaza hain apaindua ikustea, eta horrela izan da.

Mila esker bihotzez ekimen honetan modu batean zein bestean aritu zareten guztioi.

Herri Eskola

► ESKERRIK ASKO

Mundu hobeago bat posible dela uste dugulako hasi ginen 2-dean berotuz ekimenarekin. Hedabideetan eta sare sozialetan ikusten ditugun gertakarien aurrean, arduraz jokatu behar dugula uste dugulako, gizakiak beste alde batera begiratu ezin duela pentsatzen dugulako martxan hasi ginen lagun talde bat.

Munduan izan diren, dauden eta izango diren gerrateak ezingo ditugula saihestu jakin badakigu, baina horien

ondorioak (gosea, heriotzak, etxe suntsiketak...) pairatzen dituzten pertsonen laguntza eskaini ahal diegula oso argi dugu!

Material biketa hau ekintza txiki bat da, gerratik ihesi dabilen pertsonen, iristen diren unean harrera duin bat izan dezaten posible egiten duen laguntza txiki bat (petatxu bat esango genuke guk). Hori bai, bihotzez eta ilusioz jositako petatxua!

Euskal Herri osoak erantzun du! Txoko guztietatik etorri da jendea koteak eta furgonetak poltsaz bete eta Elgoibarreraino! Mila esker, Mutriku, Arrasate, Soraluze, Elorrio, Eibar, Oñati, Dima, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Deba, Enderitz, Amurrio...

Eta nola ez, mila esker Elgoibar! Herriaren erantzuna izugarria izan da! Guztiz hunkituta gaude! Udalari, boluntario taldeari, itsulapikoetan txanponak bota dituzuen guztioi, itsulapikoak ipini dituzuenoi, materialekin lagundu duten enpresa eta boluntarioei... bihotzez mila esker!

Dena sailkatu eta Lesbosera eta agian Calais-era ere bidaliko ditugu zuen elkartasun kaxa guztiak aste buru honetan Bernardo Ecenarro (BESA) enpresari esker! Eskerrik beroenak zuoi! Jasotako guztiaren transportea zuen kargu hartzeagatik mila esker! Orain herrian itsulapikoetan jasotako gainontzeko dirua, zenbait kanpamentutan

dauden beharrei aurre egiteko erabili ahal izango dugu!

Denok batera, gauza asko aldatu eta hobetu ditzakegulako, gure berri izaten jarraituko duzue.

2-dean B-rotuz

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienek eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idatzkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelazko datoren eskutizik argitaratuko.

A. Garate
Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Gerrateetatik ihesi dabilzan errefuxiatuentzako bi trailer material bildu ditu Elgoibarko 2-dean B-rotuz taldeak

2-dean B-rotuz taldeko kideak erabat eskertuta daude herritarren erantzunarekin. Gerrateetatik ihesi dabilzan errefuxiatuentzako neguko materiala jasotzeko deialdi espontaneo egin ondoren, erantzuna berehalakoa eta demasekoa izan da: bi trailer beteko dituzte. Kontuan hartu beharra dago, baliabide faltagatik, bilketa aurreikusitakoa baino lehen amaitu behar izan dutela.

Elgoibarko eta inguruko herrietako 25 denda eta tabernatan itsulapikoak jarri zituzten garraio gastuei aurre egiteko, baina logistika espero baino errazagoa izango da taldearentzat, BESAk (Bernardo Ecenarro) Azkoitiko pabilioia lagakoko baitio material guztia ganoraz sailkatu eta antolatzeko. Era berean, Elgoibarren sortutako enpresa horrek bere gain hartuko ditu garraio gastu guztiak.

59 boluntario

Itsulapikoak oraindik zabaldu ez badiuzte ere, jasotako dirua errefuxiatuen beharretara bideratuko dutela aurreratu dute. Datozen egunotan argituko dute bildutako diru kopurua, eta nora bideratuko duten.



Boluntarioak bildutako arropa sailkatzen, bidali aurretik.

Guztira 59 boluntariok parte hartu dute errefuxiatuentzako material bilketan, nahiz eta jende gehiagok ere bere burua eskaini. Elkartasuna Elgoibartik eta Mendarotik ez eze, Euskal Herri guztiatik etorri da.

Taldeak oraindik balantzea egin ez badu ere, herritarren erantzuna txalotu

du Laura Daquinta taldekideak. “Jendearen laguntzeko asmoa ikaragarria da. Kaleko jendeak beste mundu bat nahi dugu, baina politikariak beste nonbait bizi dira. Ikusiko dituzte mugimendu hauek”, adierazi du. “Ikaragarria izan da”, gaineratu du. Udalaren erantzuna ere ona izan dela gaineratu du.

Txantxangorriaren irudia jarriko dute Elgoibarko Udalaren bulegoetan euskara naturaltasunez erabiltzera animatzeko



Herritarrek Administrazioa jotzen dutenean euskara naturaltasunez erabiltzeko kanpainarekin bat egin du Elgoibarko Udalak. Hori adierazteko, txantxangorriaren irudia jarriko du bere menpeko bulegoetan, EAEko beste administrazio batzuek egin duten bezalaxe. Honako bulego hauetan jarri dute ikurra: Herritarrentzako Arreta bulegoan, Udalaren webgunean, eta Udalaren ardurapeko gainerako erakundeetan ere badago.

Zigiluaren helburua da euskaldunak aktibatzea, euskararen erabilera eremu publikoetan hedatzea, eta erabiltzaileak animatzea gure hizkuntza indartu dadin.

Interes handia piztu dute 'Bakea eta bizikidetza' jardunaldiek

Pentsaera politiko ezberdineko pertsona askoren interesa piztu dute aste honetan hasitako *Bakea eta bizikidetza* jardunaldiek. Eguaztenean, esaterako, Edurne Brouarden eta Marixabel Lasaren mahai-inguruak (argazkian) Kultur Etxeko aretoa bete zuten. Elgoibarko Udalak bakean eta bizikidetzan sakontzeko antolatutako jardunaldiak, eta otsailaren 3an amaituko dira, Sabino Ormazabal indarkeria-ez aktiboaren bultzatzailearen *Memoria partekatu baterantz* hitzaldia-ekin. Erreterriko esperientziaren berri emango du.



Kondiako 65 langile lan gabe geldituko direla salatu du ELAk

"Joan den astean, Kondiako langileak kaleratzen dituen auto judiziala iritsi zen, ondorioz 42 langile kaleratu dituzte dagoeneko, eta 23 datorren astean pasatuko dira INEMeko ilarrara", ELA sindikatuko Aitor Iturain idazkariak zabaldu-tako idatzi baten arabera.

Koldo Saratxagaren NER taldean sartzeak ezertarako ez duela balio uste du Iturainek. "Horrek guztiak, noski, ez zuten enpresaren norabidea aldatu".

"Krisiaren aurretik Kondiako zuzendaritza plan estrategikoak egin eta enpresarendako etorkizuna lantzen zebilen. Gero, berriaz, plan estrategiko bakkarra soldatak jaitzi eta lan baldintzak okerragotzea izan da. Hori al da gure gobernariak nahi duten enpresa eredu berria? Zein erantzukizun hartu dute 65 kaleratzen benetako arduradunek?", galdetu du Iturainek idatzi horretan.

Gustoko

Kalitatea eta jatorria

2016ko otsailaren 12tik 14ra arte

11:00-21:00 (ostirala eta larunbata)

11:00-19:00 (igandea)

Kalitatearen eta jatorriko produktuen azoka herri bikurtuko da, gustu gustientzako jardueren programa zaporetsua eskaintzeko.

- Artisanen produktuak eta produktu biologikoak
- Slow Food-eko eta 0 km-ko produktuak
- Jatorri deiturak eta AGBak
- Lurraldeko turismoaren eta landa ostatuaren eremua
- Artisanatza, folklore eta ongizateko produktuen erakusketa
- Produktuen zuzeneko salmenta eta dohaineko kontsigna
- Dastaketa tunela
- Show Cooking-a eta txosna tradizionala
- Hezkuntza eremua, haurtzaindegi zerbitzua, kultur etxea...

EUSKADI + BASQUE COUNTRY

Laguntzaileak



















www.gustoko.eu
www.bilbaoexhibitioncentre.com

EXPOSSIBLE!



“Lehenengo herritarrek hitz egin behar dute eta gero politikariek lan egin”

▶ MIKEL ANAKABE ETA EVARISTO RODRIGUEZ

AHAL DUGU-PODEMOSEKO KIDEAK

Ahal Dugu-Podemos, gero eta ezagunagoa den alderdi politikoa. Elgoibarren ere bere zirkulua osatu nahian ari dira eta jadanik lehen pausoa eman dutenetako bi dira Mikel Anakabe eta Evaristo Rodriguez. Beren iritziak kaleratu ez ezik herritar xeheak zirkuluaren bueltan jartzera animatu nahi dituzte, eta horretarako bilera irekia egingo dute otsailaren 11n, 19:30ean, Kultur Etxean. Sare sozialen bidez jar daitezke elgoibartarrak zirkuluarekin harremanetan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ Nola hasi zineten Elgoibarko Ahal Dugu-Podemos zirkulua eratzen?

Evaristo: M15ean hasi zen kontua. Hauteskundeetan Pablo Iglesias Podemosek aurkeztu zenean Elgoibarren 11 pertsonak eman zioten bozka eta gero, herrian zerbait egiteko gogoia geneukan batzuk Podemos zer zen ikusten hasi ginen. Udal hauteskundeetan hemen ez zen aurkeztu, baina Eibarko taldearekin harremanetan jarri nintzen Elgoibarren zirkulu bat eratzeko. Esan zidaten sare sozialen bitartez eman nezakeela lehen pausoa. Hauteskundeetan ahaldun izan nintzen eta emaitzak ikusita, pentsatu genuen zerbait gertatzen hasi zela herrian.

Mikel: Ikasketak direla-eta, Podemos hasi zenean, Vigon nengoan. Izena eman

nuen internet bidez eta hasi nintzen bozkatzen hango jendea zerrendetarako eta Marea de Vigoko jendearekin ere hitz egin nuen. Elgoibarren zirkulua eratzen ari zirela ikusi eta harremanetan jarri nintzen.

E: Aldekoak asko daude baina zirkulurako nahi dugu bere denboratik taldeari tarte bat eskainiko dion jendea. Orain lau gaude: Carlos Javier Lahoz, Mikel Anakabe, Evaristo Rodriguez eta Jesus Gabilondo.

♦ Herrian ez al zen zuen ikusmoldeak betetzen zituen beste alderdirik?

E: Podemosek M15Mean sortutako gaiei erantzuten die eta Elgoibarren ez zen egon horren harira ezer ez. Krisia iritsita-koan jendeak bere burua estu ikusi eta konturatu dira politikariek ez dutela ondo

egin, baina beraiek ere ez. Nahi dugu herritar xeheak erakundeetan sartzea, benetako partehartzea eta gardentasuna. Udalbatzarrak irekiak dira baina herritarrik apenas joaten da eta gero denok kexatzen gara. Herritarrak ere badu errua.

♦ Politikara gerturatzeko momentu egoikia aukeratu duzue?

M: Bai. Gero eta jende gehiagok du politikarekiko interesa. Sare sozialetan jende askok partekatzen ditu politikari buruzko edukiak, telebista piztu eta gero eta denbora gehiago eskaintzen zaio politikari. Esaterako, Kongresua eratzerakoan. Nik sekula ez dut ikusi hain programa luzerik horri buruz. Ni Vigon egon naiz eta Elgoibarren aldean hiri handia izanik mugimendua handia da. Ni Magisteritzako

fakultatean nengoen eta LOMCE legea sartu zen. Beraz, kalera atera ginen eta mugimendua ikusi zen. Gazte jendeak bere iritzia ematen du eta jakin ere badaki politikari buruz

♦ **Alderdi guztiek hauteskunde kanpainen aldaketa dute ahotan. Zein aldaketa nahi duzue Elgoibarrentzat?**

E: Gure asmoa da Elgoibarren zirkulua eratzea eta gero lehenengo helburua da Udalean sartzea informazioa zuzenean jasotzeko. Esaterako, diru kontuekin gertatzen dena jakiteko modu gardenean. XXI. mendean aukera izan behar genuke, etxetik, ordenagailuko botoi bat sakatu eta Udal aurrekontu zehatzak ikusteko azken zentimora arte. Hori ez da egiten eta barruan egonik jasoko genuke informazioa.

M: Zirkulua ez daukagu osatuta, beraz, ezin dugu Podemosen zirkuluaren ize nean hitz egin. Ni neu, Udal aurrekontuei eta soldatei begira aritu naiz. Aurrekontuetan diru kopuru bat agertzen da, baina gastuen kontzeptuak ez dira oso zehatzak eta hori aldatu egin behar litzateke. Bestalde, alkateak eta alkateordeak kobratzen dutena, ez zait normala iruditzen. Ezin du kobratu 67.000 edo 60.000 euro funtzio publiko batean dagoen batek. Lau urte politikari eskaini nahi badizkio ez dadila izan dirua irabazteko helburuarekin. Podemosek eskatzen du lanbide arteko gutxieneko hiru soldata kobratzea. Hori litzateke aldaketa bat.

E: Podemoskoek diru guztia kobratzen dute, baina 1.800 euro hartu eta bestea gizarte-proiektuetara bideratzen dute.

M: Askotan soldatak jaisten ez diete uzten gehiago absolutua ez badute, bestela besteei ere jaitsiko litzaieke. Bestalde, nik uste dut aldatu beharreko beste gauza bat dela argia, ura, garbiketa... zerbitzuak publiko egitea ez subkontratatuta.

♦ **Udal politika nola ikusten duzue?**

M: Elgoibarren alderdi gutxi daude Udalean; hiru eta bat gainera ordezkari bakarrek. Ez dago pluraltasunik. Nik uste dut hemendik hiru urte barru Podemos sartuko dela eta lau egongo lirateke, beraz, hobeto, gainera gehiengoa kentzeko au-

kerare ere balegoke. Ez dut nahi gehiengoa ez guretzat ez besteentzat. Banatuta egon arren, denen artean hitz egin beharra izateko.

E: Elgoibarren oraindik zirkulua eratzeko gaude, beraz, ez da ezer gertatzen hurrengo Udal hauteskundeetara aurkezten ez bagara. Helburua da herritarren parte hartzea.

M: Zirkulua eratu eta zirkulu horrek izan behar du jendea etorri eta hitz egiteko tokia. Positiboa da hiru urte izatea hurrengo Udal hauteskundeetara aurkezteko. Tarte hortan badugu nahikoa denbora jendeak bere iritzia, proposamenak emateko. Hortik aurrera jendeak erabakiko du zein toki duen. Udaletxean sartuz gero hara eraman ahal izango dira iritzia eta proposamen horiek.

“Gazte jendeak bere iritzia ematen du eta jakin ere badaki politikari buruz”

♦ **Nola ulertu daiteke hauteskundeetan lortutako arrakasta hori?**

E: PSOEek sekula ez du eman ezkerreko jende askok nahi duen erantzuna. Beraz, Podemosen ikusi du zerbait badagoela. Elgoibarren, esaterako, autonomo asko daude eta gu eskatzen ari gara autonomoek ez dituzten erraztasunak, orain arte inork eman ez dituenak. Independentzia eta erreferendumaren gaian ere funtsezkoak gara, jendeak hitz egin behar du, erabakitzeko eskubidea dauka. Lehenengo herritarrek hitz egin behar dute, eta gero politikariek lan egin; egiten ez badute ez da demokrazia.

♦ **Ahal Duguren EAeko zirkuluak autonomia du Podemosen?**

M: Herri mailako zirkulutik hasita dago autonomia. Edozein elgoibartarrek Podemosko webgunean izena eta NAN zenbakia sartuta aukera dauka edozer

gauza bozkatzeko ez daude Madrildik agintzen.

E: Nik bozkatu ditut Espainia mailako gauzak eta hemen planteatuz gero berdin bozkatuko nituzke. Zirkuluak baditu Elgoibarren bakarrik egiteko gauzak erabat autonomoak direnak, alderdiaren oinarria dira zirkuluak, jendea elkartzeko taldeak eta egon daiteke alderdian afiliatu gabeko jendea.

M: Udal hauteskundeetan Podemosek zerrenda luze bat aurkeztu eta gero herritarrek aukeratzen dute. Ni Vigon nengonean, adibidez, Vigoko zerrendetan zein egotea nahi nuen aukeratu nuen nik Vigon bozka ez eman arren.

♦ **Zein ikusten duzue Espainiar Estatu presidentea?**

M: Nik neuk Pedro Sanchez.

E: Hala izan beharko litzateke. Iglesia-sek bota duen hordagoa PSOEn batzuk gaizki hartu dute, baina PSOE Podemosekin akordiorik egin ezean bere hilibia eraikitzen ari da. PSOEko batzuek esan arren beti kolore bera bozkatzen dutela orain eginez gero akabo. Akordioa egitera derrigortuta daude eta nagusiek diote umildu egin dituztela.

M: Akordio batera iristen badira denok bozkatu ahal izango dugu internet bidez podemos.info webgunean izena emanda aukera baitago horrelako gauzak bozkatzeko, zerrendak egiteko, hauteskunde programak osatzeko...

♦ **Legebiltzarreko hauteskundeak ere laster izango dira. Nola ikusten duzue Ahal Duguren tokia?**

M: Indar handia izango du, askok pentsatzen duena baino handiagoa. Ez ditut hauteskunde orokorretako emaitzak extrapolatu nahi, baina EAJk eta Bilduk ordezkariak galduko dituzte, PSOEek eta PPK gehiago eta Podemos sartuko da. Gero, EAJ, Bildu eta Podemos nola geldituko diren ez dakit.

E: Espainian gertatu denaren antzerkoa izango da. PSOE behin baino ez da lehendakaria izan, baina gainontzean EAJ beti eta hori amaitu egingo dela uste dut.



Kantuz, Santa Ageda gogoratuz

Auzorik auzo atera gera, aurten dozena bat gazte. Santa Ageda bihotzekuak merezi zaban hainbeste. Horrela kantatzen dute Elgoibarren Santa Ageda bezperan baserri kopla kantuan joaten diren gazte edo gazte emenek. Gaztetasuna islatzen dute beren kantuek jai giroa nagusi izaten baita Santa Ageda eskean, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Aurten mendarotarrek hartu dute aurrea eta urtarilaren 30ean irtengo dira. Eskean ibili arren, baserriarren harrerak berak ere asko ematen die soinuak lagun ibiltzen diren koplari. Baserriak ez ezik kaleak ere girotzen dituzte Santa Ageda koplak doinuak, Elgoibarren Etxegiñakoek abestuak, aurten otsailaren 6an.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



tresna berriak behar dituztelako". Baserrietan diruaz gain bestelakorik ere ematen diete. "Joan ordurako kafea eta galletak, hurrengoan hamarretakoa... eta ezezkorik ezin ba esan. Sekulako dirutza batzen dugu. Ni neu poltseroa izaten naiz urtero eta sekulako dirutza batzen dugun arren, noizbait poltsara botoiak bota izan dizkidate eta orratz buru zuriak ere. Gehienek ondo hartzen gaituzte baina bat edo bestek gaizki ere bai, baina borondatea baino ez dugu eskatzen, beraz, aurpegi ona ipini eta aurrera". Nagusiki ondo hartzen dituztenez oso gustura ibil-

tsailaren 4a da Santa Ageda bezpera, baina urtarilaren 30erako 8:30ean udaletxe aurrean dute hitzordua mendarotarrek santa eskerako. Hiru taldetan banatu eta bakoitzean bi bertsolarik jardungo dute: Mañukorta eta Asier Lazarobaster Agarre Sahatsu Mendin, plazan eta Azpilgoetan, Iñaki Kortaberri eta Jon Larrañaga trikitilariekin; Aitzol Urain *Bidaburu* eta Beñat Ugartetxea Igor Rey, Lean Esnaola, Amaia Sukia eta Iñigo Loiolarekin, Aran Errekan eta Garagartzan; eta Beñat Lizaso eta Iñigo Zubiaurre *Beitxi* Mendarozabalen Idurre Arriola eta Maite Olazabalekin. Urteetan beste bertsolari batzuk ere aritu izan dira: Peñagarikano, Andoni Larrañaga, Amaia Agirre... eta Mendaro bertakoak ere: Juanito Loiola, Jabier Urbieta, Isidro Astorkia, Manuel Loiola...

Koplatan aritu bakarrik ez, dirua ere batu behar izaten da santa eskean eta talde horietako batean aritzen da Florentino Larrañaga urteetan. Mendaron, orain dela 40 urte ibiltzen ziren kantuan, eta eten baten ondoren 27 urte dira berriz hasi zirela, eta Larrañaga urtero ibiltzen da.

Berarentzat oso egun berezia izaten dela dio. "Beti herrirako zerbaiterako dirua behar delako biltzen dugu eta aurten txarngakoentzat jasoko dugu. Urteurrena dute eta besteak beste musika

tzten dira eta giroa ere ona izaten dute euren artean.

Poltsari izanda jasoko du koplari, "baina emakume gazteak, mutil zaharrak... ateraz gero zirika kantatu izan diete", dio Florentino Larrañagak.

Zapatu goizerako animoso dago aurten ere. "Lehen arratsalde ere irteten zen talde bat, baina bazkal ostean gogo handirik ez da izaten. Orain gazte asko dago eta baita emakumeak ere. Gizonezkoak bakarrik izan bagina talde bakarra baino ez legoke eta orain hiru. Bestela agian bukatu egingo litzateke, baina jarraituko dutela uste dut eta nik ahal dudana bitartean lagunduko diet".

ELGOIBARKO IZARRA KOPLAK ARGITUZ

Elgoibarko baserri auzoetara joanda, baserriarrek beste bertsolari batzuekin gozatzeko aukera izango dute otsailaren 4an arratsaldetik gaurera. 1994ean hasi ziren estreinakoz kantuan eta iaiz elurrak doinuak ezkutatu zituen arren, aurten berriz arituko dira Elgoibarko Izarrakoak bi taldetan. German Meabestarretxeak, Jabier Arrizabalaga *Ziurdak*, Juan Mari Narbaizak eta Juan Mari Areitio abestuko dute Ekaitz Baskaran, Arantza Beristain eta Balzola anaiak trikitilariak eta koruak lagun dituztela.

23 urte egin ditu German Meabesterretxeak koplari Elgoibarren. Santa Eskean Eibarren, Mutrikun, Donostian... ere ibilia da baina herrian eta Elgoibarko Izarraren itzalpean berarentzat berezia dela dio. "Urtean zehar egiten ditugun gairontzeko saioekin ez du zer ikusirik. Ate ostean entzuten dagoena eta baserria koplazten dira eta hori da xarma berezia ematen diona".

Lehen urte hartan inor gutxik pentsatu zuen hainbeste urtean segidan irtengo zirenik, baina "talde ona elkartzen da eta batez ere baserriarren harrerak egin du posible, honekin jarraitzeak". Hala ere, izan da zailtasunik ere urteen joanean, "asteguna tokatzen denean baserrietan gero eta jende gutxiago dago, gazteak lanean egoten dira eta nagusiak, zoritxarrez, joaten ari dira. Une hunkigarriak eta gogorak ere bizi izan ditugu ate ondoetan, urtero zai izan ditugunak falta direnean, eta ia 25 urteko ibilbidean asko dira poliki poliki joan zaizkigunak". Hala ere, momentuz, eguna mantentzea hobetsi da eta aurtengo ere ate ostean zain izango dira baserriarrak.

Jabier Arrizabalaga *Ziarda* ere urte hauetan guztietan aritu da koplari eta ia z elurra zela-eta egindako etenaren ondoren, aurtengo "indarberrituta" arituko dela esan du. Mutikotan ezagutu zuen santa eskeko ohitura *Ziardak* baserrian "mutil kozkorak ginenean beti zain egoten ginen etxera norbait noiz etorriko egun horretan eta orain guk kantatzea gauza polita da".

Baserrietan estimatzen duten gauza bat dela uste du, "bestela ez ginatke joango". *Ziardak* besteak beste San Migelen, bere auzoan, abesten du eta beretzat berezia da. "Jende gehiago ezagutzen dut, eta etxekoen izenak ez ezik beraien



berri gehiago jakiten dudanez –nolakoak diren, lana...– koplazteko errazagoa izaten da". Urteotan bitxikeria ugari gertatu dira santa eskean eta gogoan du San Migeleko baserri batean nola telefonoz kantatu behar izan zituen koplak batzuk Estatu Batuetara lanera joandako batek entzun zitzan; gustura kantatu eta baita entzun ere.

Ahalik eta baserri gehienetara iristen saiatuko dira Elgoibarko Izarrako bi taldeak, baina denbora askorik izaten ez denez, bisitatzen ez dituztenei barkamena eskatu nahi die *Ziardak*.

Urteak aurrera doaz, baina garai bateko Santa Ageda bezperako koplak kantatu ahaztu gabe, aurtengo ere entzungo ditugu batean eta bestean Agedari eta herriarrei kantatutako koplak.

*Baserri, kale koplaz jantziaz
Elgoibar eta Mendaro.*

*Ohitura zaharrak berri ditzagun,
modu hoberik ez dago.*

Etxegiña taldea kalean



Etxegiña taldearen koplak, salbea eta makil hotsak izango dira Elgoibarren aurtengo azkenak, otsailaren 6an egingo baitute santa eskea. German Uriguen *Etxegiñari* zor dio taldeak izena, bera hasi baitzen 1925ean kaleko Santa Ageda eskearekin Elgoibarren. Ermuan jaio zen, gaztetatik zaletu zen bertsotara eta bere bertsorik ezagunena, gaur egun oraindik abesten den salbea da, 17 urterekin lehen aldiz Ermuan kantatua. 1980ra arte aritu zen koplari eta 1981ean Kepa Urainek hartu zion lekukoa. Azken urteotan bezala, aurtengo ere, taldea bitan banatu eta Urain arituko da batean eta Jesus Urizar bestean. Elgoibarko kaleak eta auzoak koplaz jasotako diru guztia Caritasi emango diote. Koplak koplak Etxegiña bera ez ezik abenduan hil berri den Jose Mari *Etxarte* izango dute gogoan aurtengo. Bestalde, ohorezko bi makila ere emango ditu Etxegiña taldeak.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Torlojuak eta iltzeak pista beltzean: "Garajea daukat pista beltzean eta azken bi urteotan arazoak izan ditut. Sei aldiz zulatu zaizkit autoko gupilak eta bi aldiz motoarenak garajetik irteterakoan eta hori ez da normala. Gauzez autoa atera nuen batean konturatu nintzen lurrean zerbaitek distira egiten zuela. Autotik irten eta garajeko sarreran, iltzeak eta torlojuak aurkitu nituen. Jaso egin nituen berriz zulatzeko beldurrez, baina gerora ere berriz agertu dira. Beraz, pentsatzen hasia nago norbaitek apropos jarri dituela gure garajearen parean. Salatu ez ezik eskatu ere nahi dut horrelakorik gehiago ez egiteko".



Arriagako industriaguneko stopa: "Arriagako industriaguneko bidegurutze batean Stop seinalea dago lurrean margotuta eta industriagunetik irtetea asko ez dira gelditzen. Arriaga auzorantz autoan joaten garenok susto bat baino gehiago izan dugu, batik bat lantegietako irteera orduetan. Askok kanterarantz begiratzen dute ea kamioirik datorren ikusteko, baina beste alderantz ez eta gorantz doazenak errepide erdian gelditu behar izaten dute. Baserrietara, Garbigunera, harrobira edo mendira goazenentzat arriskutsua da. Eskatu nahi genuke berriz margotzea lurreko seinalea eta zutikako seinaleren bat ere jartzea istripu larri bat gertatu aurretik".

Arratoiak Sigman: "Sigma auzoan bizi naiz eta denbora gutxian arratoi bat baino gehiago ikusi ditut gure auzoan. Batik bat zabor edukiontzien inguruan ibiltzen dira eta niri izugarritzko nazka eta ikara ematen didatenez, horrelakoren bat agertuko zaidan beldurrez, zaborra botatzera etxeko beste norbaitek joan behar izaten du edo bestela herriko beste auzoren batera eramaten ditut zabor poltsak. Arratoi gehiago agertu ez dadin neurriak hartu beharko lirateke".

Eskaierak bustita: "Astelehen goiz batean Trenbide kaletik Lekuederrera pasaeran nintzela eskaierak goitik behera jaisterakoan erabat bustita zeuden. Ez dakit zer ordutegi edukiko dute horiek garbitzeko eta mangerarekin garbitzen ote dituzten ere. Baina eskaiera horietatik jende asko ibiltzen denez, baita adineko jendea ere, arriskutsua izan daiteke edonor labaintzeko eta jausteko. Egun hartan hori entzun nion emakume bati, ez dagoela eskubiderik eskaierak horrela egoteko. Beharbada ez dago ordutegia moldatu edo garbiketa beste modu batera egiteko aukerarik, baina eskatu nahi nuke ea konpontzerik egongo litzatekeen baten batek min hartu baino lehen".



Argiteria berria pasabidean: Errosario kaletik Errekaz beste aldera doan zubia pasatu eta N-634 errepideari paralelo pasabidea dago. Farolak zeuden hori eta ematen zuten argia laranja zen. Farolak kendu dituzte eta argi zuria duten beste foko batzuk ipini dituzte. Foko berriak oinezkoengandik gertuago daudenez, bidea hobeto argizatzen dute eta bertatik egunero ibiltzen garenontzat askoz erosoagoa da. Lehenago bide azpiko tunelean jarri zituzten argiak eta hori ere eskertzekoa da, batik bat negu partean, goizago iluntzen duenean gu seguruago ibiltzeko erraztasuna ematen digulako".

Deca eta Beristain eskubaloit taldeak Gipuzkoako txapelketa



Gipuzkoako Txapelketa irabazi dute Sanlo eskubaloit taldeko Deca Elgoibar kadete mutilen taldeak eta Beristain Banaketak jubenil mutilen taldeak. Bi taldeek igoera fasea jokatuko dute asteburu honetan Elgoibarren, izan ere, Euskal Ligako Bigarren Fasea jokatzeke igoera Faseak Olaizaga eta IMH kiroldegietan jokatuko dira gaurtik domekara bitartean. Deca taldea denboraldi aparta egiten ari da, eta jokatutako 17 partidetatik bakarria galduta irabazi dute Gipuzkoako txapelketa. Antzerako nagusitasuna erakutsi du jubenil mailan Beristain Banaketak taldeak ere. Hamalau partida irabazi eta bakarria galdu dituzte.

Iker Dorrnsoro da Haundiko entrenatzaile berria

CD Elgoibarrek jakinarazi duenez, Haundiko orain arteko entrenatzaile Egoitz Mendizabalek dimisioa eman du eta Iker Dorrnsoro igelddorra izango da aurrerantzean talde nagusiko entrenatzailea. 2010etik 2015eko ekainera arte Tolosa CF taldeko entrenatzailea izan da Dorrnsoro. Hain zuzen ere, domekan egingo dio bisita Elgoibarrek Tolosari, liderrari. Entrenatzaile berriak zapatuan zuzendu zuen estreinakoz Haundi eta bana berdindu zuten Mintxetan Getariako Keta taldearen aurka. Saillapeneko 13. postuan dago Haundi, 21 punturekin. 41 puntu ditu liderrak, Tolosak,



Besaidera mendi irteera domekan

Besaidera mendi irteera antolatu du urtarrilaren 31rako Morkaiko Mendizale Elkartek, Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoekin elkarlanean. 09:30etan elkartuko dira Mintxetako aparkalekuan eta autoz joango dira Arrasateko Udala auzoraino. Handik, Udaltx mendiaren magaletatik barrena, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia bazten dituen gunera ailegatuko dira. Besaidera. Ez dela ibilbide zaila ohartarazi dute eta edozein adinetarako egokia dela.

Emitzak

FUTBOLA

Haundi 1 - Getariako Keta 1
Idiazabal 5 - Elgoibar 1 (1. erreg.)
Elgoibar 1 - Amaiak Bat 1 (Jub.)
Amaiak Bat 3 - Elgoibar 2 (A Kad.)
Urki 1 - Elgoibar 5 (B Kad.)

SASKIBALOAIA

STL Azkune 43 - Viento Sur Elgoibar 50

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 1 - Lauburu Ibara 2 (Naz. B)

ESKUBALOAIA

Beti Onak 30 - Lauko 24 (Senior emak.)
Beti Onak 25 - Alcorta 31 (Senior giz.)
Gabaz 26 - Egia 22 (Senior giz.)
Tecnifuelle 20 - Zuazo 26 (Jub. neska.)
Beristain banaketak 28 - Leizaran 19 (Jub. mut.)
Pneumax 16 - Zuazo 11 (Kad. neska.)
Casa Astigarraga 27 - Tolosa 25 (Kad. neska.)
Urnieta 24 - Bankoa 33 (Kad. mut.)
Deca Elg. 42 - Zarautz 28 (Kad. mut.)
Aiala 9 - Dario Bus 34 (Inf. neska.)
Brakys 13 - Cometel 19 (Inf. neska.)
Pulpo 50 - Federopticos Ikus 4 (Inf. neska.)
Hotel Txarriduna 22 - Zarautz B 17 (Inf. mut.)
Pulpo 16 - Murgil Elg. C 41 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 30
10:00 Elgoibar - Beasain (Oho. Kad.)
12:00 Elgoibar - Arizmendi (Kad.)

Domeka, 31

11:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Alebin)
11:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Aleb.)

SASKIBALOAIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 30
20:00 Viento Sur Elg. - Ordizia K.E. (Naz. B)

ESKUBALOAIA (OLAIZAGA KIROLDEGIAN)

Barixakua, 29
17:45 Escolapios - Urnieta (Kad. igoera fasea)
19:15 Urduluz - Egia (Jub. igoera fasea)

Zapatua, 30

09:45 Cometel - Pizzeria Marina Pulpo (Inf. neska.)
11:15 Usurbil - Escolapios (Kad. igoera)
12:45 Egia - Eibar (Jub. igoera fasea)
16:30 Lauko - Garlan (Sen. emak.)
18:15 Alcorta - Usurbil (Senior giz.)

Domeka, 31

09:45 Ikus - Aloña Mendi A (Inf. neska.)
11:15 Eibar - Urduliz (Jub. igoera fasea)
12:15 Urnieta - Usurbil (Kad. igoera)

ESKUBALOAIA (IMH KIROLDEGIAN)

Barixakua, 29
17:45 Eibar - Beristain (Jub. igoera)
19:15 Deca - Usurbil (Kad. igoera)

Zapatua, 30

09:45 Dario - Brakys Pulpo (Inf. mut.)
11:15 Urduliz - Beristain (Jub. igoera)
12:45 Deca - Urnieta (Kad. igoera)
Domeka, 31
09:45 Murgil - Amenabar B (Inf. mut.)
11:15 Escolapios - Deca (Kad. igoera)
12:45 Beristain - Egia (Jub. igoera)



Mugertza, kros bete-betea

Eguraldi ederrarekin egin zen aurtengo Mugertza Krosa. 4.000 lagun batu ziren domekan Mintxetan, 500 atletik gora lasterka ikus-
teko. Irene Chepet Cheptai keniarrak irabazi zuen emakumezkoen lasterketa nagusia eta Aweke Ayalew, etiopiar jatorriko bahraindarra,
izan zen azkarrena gizonezkoen proba nagusian. Mintxeta Atletismo Taldeko Martin Hernandezek kadete kategoriako lasterketa
irabazi zuen. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, antxixikariak zein eurak ere oso gustura geratu dira aurtengo krosarekin, eta da-
goeneko hasi dira datorren urtekoa prestatzen Argazki gehiago ikusteko: www.barren.eus

- ASIER ORBEA -



Eamonn Martin britainiarra omendu zuen Mintxetan,
1991n garaipena lortu zuenetik 25 urte pasa direla-eta.

Addis eta Tabor Wolde Mintxetan, aitari eskainitako oroigarriaren aurrean.





Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida



Garazi Sampedro Arando
RPS 169/15
ERROSARIO HAGIN KLINIKA
Errosario, 7
Elgoibar
943 743 679

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192



Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea
GINEKOLOGOA
R.P.S. 82/15
Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

Jeku eder
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053



federópticos ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745 



aldaz
horts klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea

Tremado kalea, 13
943 740 191 / 667 943 628
www.fisio-mas.com
RPS 173/19

CLINICA DENTAL
ELIZPE
HORTZ KLINIKA
RPS 88/15
Elizbun, 3 - SORALUZE
Tel.: 943 752 567
Astehelentetik ostiralean
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe3@gmail.com

Inauterietako dena prest

Nor bere aldetik Inauterietako mozorroa –eta parranda– prestatzen ari den bitartean, ikastetxeak, taldeak, kuadrillak zein erakundeak dena prest lagatzen hasi dira. Urtero bezala, kalejira, karroza, txaranga, merendolak edota kontzertuekin ondo pasatzeko aukera izango da. Behekoak programatutako ekintza batzuk baino ez dira. Gehiagori buruzko informazioa kontsultatu nahi izanez gero, BARRENEko agendan kontsulta daiteke (20. orrialdea)

Umeentzako eskaintza zabala

Urteroko moduan umeentzako hainbat jarduera antolatu dira. Mendaroko ludotekan ostegunean ospakizun bereziak izango dituzte; Elgoibarkoan, berriz, ostiralean egingo dute merendola, photocalla eta mozorro lehiaketa. Egun horretan, gainera, irtengo dira Elgoibarko Ikastolako ikasleak Euskal Inauterietako eskaintzera Kalegoen plazara (euria bada, Ikastolan).

Hilaren 6an, zapatu arratsalde osoan umeentzako ekintzak izango dira Elgoibarko kaleetan.



Txikiteoa eta dantza, Mendaroko Gaztetxearen eskaintza

Mendaroko Gaztetxeak egun osoko jai egitaraua antolatu du otsailaren 6ko zapaturako. Goizean txikiteorako deia egin dute. Bazkaria 15:00etatik aurrera izango da, Gaztetxean bertan. Ondoren, jokoei ekingo diete. DJ batek girotuko du arratsaldea, jendeak dantza egin dezan.

Izena emateko txartelak Aitz Beltz tabernan eskuratu daitezke 15 euroren truke. Mendaroko Gaztetxeak dei egin die gazteei Inauterietako zapatuko jai honetan parte har dezaten.



Animalien eta pertsonen mozorro lehiaketa zapatuan

Animalien babeserako Adogi elkarteak ekimen berezia antolatu du Inauterietako zapaturako. Maalako parkean mozorro lehiaketa egingo du, 11:00etatik 15:00etara bitartean. Etxeko abereek eta haien jabeek parte hartuko dute lehiaketan. Adogiren arabera, "5 euroren truke izena eman eta etxeko guztiek Inauterietan disfrutatzeko aukera aparta" izango dute.

Horrez gain, Adogik mahai informatiboa jarriko du, animaliak babesteko zer lan egiten duen ezagutarazteko. Era berean, bigarren eskuko arropa zein bitxikeriak erosi ahal izango dira. Umeek marrazkiak egiteko aukera izango dute. Jai giroko ekitaldia iragarri dute, musikaz girotua.



Mugertza Kroseko marrazki lehiaketan, lanen kalitatea goraipatu du epaimahaiak



Arg.: elgoibar.eus

Zapatuan banatu zituzten Mugertza Kroseko marrazki lehiaketako sariak. 2 eta 12 urte arteko 260 umek hartu zuten parte. Epaimahaiaren arabera, parte hartzea handia izan da, eta lanak "kalitate handikoak" izan direla-eta, lanak izan dituzte aukeraketa egiteko. Lehen kategorian (LH1-LH2) Sara Oiarzabal Zubiaurrek irabazi du eta bigarren saria Elene Garrido Gabilondorentzat izan da. Bigarren kategorian (LH3-LH4) lehen saria Eneko Etxaniz Iruetak lortu du, eta Aimar Oyarzabal Zubiaurre izan da bigarrena. Hirugarren kategorian, (LH5-LH6) Naroa Rodriguez Aranburuk irabazi du eta Ihintza Gonzalez Moreno izan da bigarrena.

Origami ikastaroa antolatu du Egur arte tailerrak biharko



Borja Rodrigo aparteko maisua da papera tolestuz forma bereziak aurkitzeko, eta bihar (zapatua) Elgoibarren origami tailerra eskainiko du, Egur arte tailerrak antolatuta. 09:30etik helduek zein familiek (7 urtetik gorako umeekin) aukera izango dute tailerrean parte hartzeko. Oraindik ere izena eman daiteke 666 557 538 telefono zenbakian. Tailerraren prezioa 5 eurokoa izango da nagusientzako eta 3 eurokoa umeentzako.

Rodrigok origami edo papiroflexia ikastaroak ematen ditu eta sesioak gai ezberdinetara moldatzeko aukera eskaintzen du. Dendetan erraz aurkitzen diren kolorezko paper arruntak oso ondo moldatzen dira tailer hauetara (aurrez forma karatuan ebakiak).

Elgoibarko Udalak diruz lagunduko ditu UEUren ikastaroetako matrikulak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) udaberriko ikastaro eskaintza egin du. Ikastaroak Eibarren, Iruñean eta Gasteizen izango dira otsailean hasi eta maiatzera arte. Elgoibarko Udalak diruz lagunduko die ikastaro horietan parte hartuko duten elgoibartarrei.

Udalak matrikula osoa ordaintzeko diru-laguntza emango die ikasle, langabetu, pentsiodun eta jubilatutako elgoibartarrei. Lanean dihardutenei matrikula erdia ordaintzeko diru-laguntza emango die. Informazio gehiago, Euskara Sailean.

Ikastaroetako batzuk on-line eskainiko ditu UEUk: *Euskal literaturaren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan*; *Euskal Mitologia: Kultur Ondarea*; *Nola dinamizatu komunikazioa Moodle-n*; *Matematika eskuekin eta baliabideekin Haur Hezkuntzan (2-6 urte)*; eta *Sormenerako hezkuntza, artea esperimentatuz*.

Ikasgeletako eskaintza, berriz, honako hau izango da:

- *Agertokia zurea da. Aurkezpenetan entrenamendu trinkoa.* Iruñean.
- *Esatearen ederra I.* Eibarren.
- *Eskola libre eta demokratikoak (III): askapenerako pedagogia baten oinarriak.* Eibarren.
- *Galerak eta dolu-prozesuak ikas-tetxearen testuinguruan.* Iruñean.
- *Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez.* Eibarren.
- *Ikasi zure proiektua sare sozialen bidez ikusarazten.* Eibarren.
- *Kulturak, hizkuntzak eta lurraldeak: kultur aniztasunaren begirada.* Gasteizen.
- *Nerabeekiko lana irakaskuntzan.* Iruñean.
- *Pedagogia sistemikoa eguneroko hezkuntza praktikan.* Iruñean.
- *Umorea hezkuntzan estrategia gisa.* Eibarren.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak orduka egiteko prest. 30 urte baino gehiagoko esperientzia dut (Elena). 660 511 781

Emakume arduratsua adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 748 977 edo 632 454 417

Umeak zein adinekoak zaintzenko prest. Bi edo hiru orduz arratsaldeetan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. 631 275 541

Adinekoak zaintzeko prest. Etxean bertan zein kanpoan bizi izaten. Esperientzia eta erreferentziak. Paperak indarrean. 616 328 060

Portalak, tabernak eta komunitateak garbitzeko prest. Paperak indarrean. 648 039 187

Adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko prest. 617 571 210

Lana egingo nuke adinekoak zaintzen edo etxeak garbitzen orduka edota internan gaez. 633 808 931

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, gaez zein orduka. 632 687 874

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erabateko prestasuna. 658 273 486

Garbiketa lanetarako edo adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Orduka edo gauetan. 638 338 816

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. 664 507 554

Adineko pertsonak edo umeak zaintzenko prest. Internan zein orduka ere egingo nuke lan. 671 487 790

Adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 638 338 816

Adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Esperientzia handia eta erreferentziak dauzkat. Internan moduan aritzeko prest. 631 506 763

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest: etxeetan, tabernetan, portaletan... Sukaldari laguntzaile lanak ere egingo nituzke. 628 738 472

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak orduka egiteko prest. 27 urte. Esperientzia dut. 632 372 864

Pintura eta obretan esperientzia handia. 35 urte. Merke lan egiteko prest. 634 245 882

Pertsona euskalduna etxeko lanak egiteko edo eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo malguta. 605 741 485

Eskaintzak

Emakumea behar da Batxilergoko 2. mailako matematika eta kimikako eskola partikularrak emateko. 634 462 336

Esperientziadun tabernaria eta sukaldari laguntzaile behar dira Elgoibarko taberna baterako. Informazio gehiago eskatzeko eta Curriculum Vitae-a bidaltzeko helbidea: tabernalan@gmail.com

Pertsona bat behar da lantegi batean makinan lan egiteko, marrazketa eta autocad ezagutzak beharrezkoak dira. Berekala hasteko. 671 555 268

15-30 urte bitarteko mutil gaztea behar da larunbat arratsaldeetan (18:00-21:00) beste mutil gazte bati konpainia egiteko. 615 787 118

Elgoibarko enpresa batek fresatzeko CNC makina baten lan egiteko pertsona behar du. 943 744 066

ETXEBIZITZAK.....
Salgai

Etxea salgai dut Elgoibar erdigunean. Bosgarren solairua, igogailuarekin. 616 111 603

Alokairua

Etxebizitza emango nuke alokairuan San Bartolome kalean. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Merke. 667 528 550

Pertsona arduratsua eta lanarekin etxebizitza bila Elgoibarren. Gehienez 400€ko alokairua ordaintzeko prest. 626 879 255

LOKALAK.....
Alokairua

Gazteentzako lokala alokagai Kalamua 4. zenbakian. Erabat ekipatua eta segurtasun neurri guztiekin. Udal ordenantza betetzen du. Informazio gehiago telefono zenbakira hots eginda edo Gabilondo inbiliarian. 610 893 332

Xagua taberna alokatzen da, San Frantzisko kalean. 605 741 485.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar

☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitatean lokal baten jabeak jakinarazi digu bere jabegoan dagoen obrako keirteera ez dagoela egoera onean. Lokalaren jabeak aurrekontua eskatu dio enpresa bati eta honek esan dio eraikuntza akats bat dagoela ezin delako pasa tximiniarekin bat egiten duen hodia.

Jakin nahi nuke nork ordaindu behar dituen ke-irteera baldintza egokietan jartzeko egin behar diren gastuak.

Legeak banan-banan zerrendatzen ditu guztienak diren elementuak eta zehazten du kea aireztatzeko eta ateratzeko instalazioak, hoditeriak, kanalizazioak..., espazio pribatuetara artekoak, elementu komunak direla.

Tximinia bera ezberdina da saila aireztatzeko instalazioekin alderatuz gero. Tximiniak kea eta gasak husten dituzte eta aireztapen-hodiak lokaletako airea berritzeko eta eraikinetako ganbera estali gisa erabili ohi dira. Kasu horietan, derrigorrezkoa da, sukaldetan aireztatze hodia osasun arrazoiak direla-eta, aireztapen naturala zein ke-hodiak egon ala ez egon. Era berean, araudiak eskatzen du, behe solairuko lokalek horrelako aireztatze modu edo gas-hodiak izatea, lokala zertarako erabiltzen den erreparatuz. Hodia zein tximinia izan, jabe bati balio badio ere, elementu komuna izango da eta komunitatearen ardura da konpontzea.

AHOLKUA: Ez da komunitatearen obligazioa tximinia negozioaren beharretara egokitzea, bai, ordea, kasu egitea, instalazioa balioduna izan dadin. Beraz, egoera onean egon ezean, komunitateak ordaindu beharko du obraren gastua beharrezkoa izango balitz bezala.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Ongi etorri, **Mikel!** Muxu handi bat gurasoen eta bereziki Naiara, Nerea eta Aneren partez.



Zorionak, **Ga-razi**, 5. urtebetetzean. Etxekoan, Maddi ahizparen eta lehengusu guztien partez.



Zorionak, **June!** Gure etxeko printzesak 3 urte igandean! Muxu handi-handi bat etxekoan partez!



Zorionak, **Mar-ke!** Larunbatean 7 urte beteko dituzu. Ondo pasa familiako guztien eta bereziki Nora eta Roken partez!



Zorionak, **sur-fera**, 7. urtebetetzean. Segi beti bezain alai eta irrifartsu. Mila kilo muxu familiako guztien partez.



Zorionak, **Yera!** Bihar 10 urte beteko dituzalako! Familia guztiaren partetik muxu handi bat!



Zorionak, **Egoi**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Ondo pasau eta muxu handi bat familia guztiaren partez.



Zorionak **Xuhar**, 26an lehen urtea egin zenuelako. Familia guztiaren eta bereziki osaba Imanolen partez.



Zorionakkkkk **Josu!** Zoragari pasa genuen zure urtebetetzea ospatzen. Muxu handi bat. Aita ama eta Mikel.



Zorionak, **pre-xiosa**, 5 urte handi!!! Etxeko guztien eta bereziki Eneko txikiaren partetik. Pa potolo bat!



Zorionak **etxeko txikiari**, asteazkenean 8 urte egin dituzulako. Familiakoan partez, bihotz-bihotzez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€
 Argazki bikoitza: 7€
 Hirukoitza: 9€
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€
 ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
 Erretratu bakarreko agurra: 3'50€
 Argazki bikoitza: 6€
 Hirukoitza: 8€
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



BASIC
 BETAURREKO PROGRESIBOAK

197€

Uzuri optika audio
 ELGOIBAR - DEBA

Kontuz! Itzazu harpeharren osatutakoak. Ez dago onartzen osatutakoak ez dago onartzen.



IRAZABAL
 clínica dental

Familiaren Osasuna
 Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
 Gutaz fidatu eta jarrai lezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitterren: @Clinicairazabal

AINHOA ZULUETA
 Odontóloga
 Astelehenetik ostegunera:
 8:00etan 22:00etara
 Ospitalean:
 18:00etan 14:00etara

FINANTZIAZIO BEREZIA. Abentzako ekonomiko handiak eta finantziario eduki txikiak. GALDETU

IRAZABAL
 clínica dental
 Julián Eteberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
 Tel: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

29 BARIXAKUA

14:00 IMH eguneko bazkaria. Ondoren, *Beat Box* umore saioa, Bocabeats (Ivan Ivenian eta Aitor Vidaurreta).

14:30 San Juan Bosko Arreiturren: Bigarren garrenko batxilerreko ikasleek ikas-bidaiarako dirua biltzeko bazkaria. Arratsaldean, kontzertuak eta ekintzak Sutegixa gaztetxean.

18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun zentroan.

30 ZAPATUA

08:30 Santa Ageda eskea Mendaroko baserri auzoetan. Elkargunea: Udaletxe aurrean.

11:00-18:00 Ate irekien eguna: tailerrak, dantzak patioan, bazkaria, disko-festa patioan. Herri Eskolan.

2 MARTITZENA

17:00-19:00 Mozorro hezkidetzailen tailerra. Ludotekan.

20:00 Santa Ageda eskeko entsegua. Etxegiña taldea. Kultur Etxeko sotoan.

3 EGUAZTENA

17:00-19:00 Sukaldaritza: San Blasak. Ludotekan.

18:00-20:00 *Emozio-identifikazioa mugimenduaren bitartez*. Asteazkeno. Usetxen (Haizearen lokalean).

19:00 Bizikidetzak jardunaldiak: *Memoria partekatu bateruntz: Errenteriako esperientzia*. Hizlaria: Sabino Ormazabal. Kultur Etxean.

4 EGUENA

10:30 Santa Ageda. Ikastolako umeak. Ospitala, Azpilgoeta, Haur Eskola eta Herriko Enparantza LHkoak. Mendarozabaletik Ikastolara LH eta HHkoak 12:00etan.

15:30 Santa Ageda. Ikastolako umeak. HHko ikasleak Gabriel Krutzelaegei kaletik Ikastolara LHko ikasleak 15:30ean Ikastolatik Kalegoen plazara (euria egingo balu, Ikastolan).

14:30 Santa Ageda eskea Elgoibarko baserri auzoetan. Elgoibarko Izarra. Elkargunea: Kalegoen plaza.

17:00-19:00 Mozorro hezkidetzailen tailerra. Ludotekan.

20:00 Santa Ageda eskeko entsegua. Etxegiña taldea. Kultur Etxeko sotoan.

5 BARIXAKUA

15:00 Mozorro jaia. Gaia: munduko dantzak. Mendaroko Ikastolan

15:15-16:30 Ikastolako euskal inauteriak. Kalejira eta dantza saioa Kalegoen plazan (euria bada Ikastolan).

16:30-19:30 Mozorro festa. Photocall, merendola eta mozorro lehiaketa. Ludotekan.

23:00 Sinuoserren XX. kontzertua: Cerebral Effusion. Kultur Etxeko sotoan.

6 ZAPATUA

11:00-15:00 Txakurren eta jabeen mozorro desfilea eta lehiaketa. Antolatzaila: Adogi. Informazioa jasotzeko: 678 373 737. Maalako parkean.

12:30 Bizipoza txarangarekin kalejira. Mendaroko kaleetan.

Goizean, Inauterietako txikiteoa Mendaroko gaztetxekeok antolatuta.

15:00 Bazkaria. Ondoren, jokoak, eta dantza DJ batek girotuta. Izen-ematea Aitz Belizen. 15 euro. Mendaroko gaztetxean.

17:30 Diskoteka DJ Mikelekin eta txokolatada. 20 euroko lau bono zozketatuko dituzte. Arno guraso elkartearen laguntzarekin Mendaroko pilotalekuan.

16:00-19:00 Inauterietako makilajea makilatzaile profesionalarekin. Gaztelekuan.

18:00-19:30 Atxutxikaraokea eta koreografiak. 2 eta 12 urte arteko haurrentzat. Antolatzaila: Atxutxiamaika. Maalako parkean.

19:30-20:45 Mozorroren eta karrozen desfilea. Mautitxa txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalako parketik Kalegoen plazara.

21:00 Mautitxa txarangaren saioa eta kuadrillentzako jolasak. Giza Eskubideen parkean.

00:00-03:00 Erromeria. Maalako parkean.

V. URTEURRENA

Fernando Azpiazu Uribetxeberria

2011ko urtarrilaren 30en hil zen.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



Zinea (Herriko Antzokian)

‘Paulina’

29 Barixakua, 21:30
 30 Zapatua, 19:00
 22:15 Jatorrizkoa
 azpitoluuekin
 31 Domeka, 19:00
 1 Astelehena, 21:30



‘Los cinco y el secreto de la piramide’

31 Domeka, 16:30



Botika ordutegiak

09:00 - 22:00

29 Barixakua FERNANDEZ
 30 Zapatua YUDEGO
 31 Domeka YUDEGO
 1 Astelehena YUDEGO
 2 Martitzena ORUESAGASTI
 3 Eguaztena BARRENETXEA
 4 Eguena IBAÑEZ
 5 Barixakua YUDEGO

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartzta (Mendaro)
 Tel.: 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udalzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa...	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea...	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gaztelekua.....	943 743 228
Enplegua/Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kiroldegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuena biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Jokalari anonimoak	657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Correos - Posta.....	943 741 547

Mendaroko Udala.....	943 033 282
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Haurtzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 800


II. URTEURRENA

Luis Izagirre Arrizabalaga

“Lizundia”

2014ko urtarrilaren 29an hil zen, 69 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan





Manu Sanchez

Unai Villena



Pisukide berriaren etorrerarekin kobazulo bihurtu zen egongela. Konturatu nintzenerako arnasa hartzea ere zaila egiten zitzaidan zulo hartan. Etxean sartu orduko, asperdurazko egurats astuna zertorkidan gainera, iraungitako airearen kiratsak betetzen zizkidan sudur-zuloak, eta jaitsitako pertsianen eta igortzen zuen energia negatibozko olatu beltzaren iluntasunak indarrez kolpatzen zizkidan begi-niniak. Arratsaldeko edozein ordu izanagatik, lanetik bueltan pisura iritsi eta sarrerako atea zeharkatzean han topatzen nuen egongelan, gor batek ere entzuteko bolumenean telebista piztuta, seko lo, zurrungaka, atea parez pare zabalik beti. Atea itxi eta etorriko zenari eszena aurrezteko ere nagiegia zen tipoa; edo hortaz konturatzeko tontoegia; edo ziu-

rrenik guztiz kontrakoa, eta apropos egiten zuen, zetorrenari modu horretan "kaixo" ironiko eta maltzurra esatearren.

Bera etorri eta berehala konturatu nintzen etxe hartan ez zegoela, jada, niretzako lekurik. Handik gutxira esan nion "agur, ben hur" pisu hari, eta pisua ezezagunekin konpartitzeari. Estudio txukun bat alokatu genuen elkarrekin orduko bikotekideak eta biok, eta elkarrekin bizitzera joan ginen. Handik gutxira lana galdu nuen. Eta handik gutxira bikotekidea. Gurekikoak egin zuela eta "agur" esatera etorri zitzaidan egunean egongelako sofán botata nengoen, ezer egin gabe denbora akabatzen, lana galduz geroztik ohi nuen bezala. Adierazi zidanez, azkenaldian arnasa hartzea ere zaila egiten zitzaion zulo hartan. Kobazulo bihurtu omen nuen etxe hura eta bertan ez zegoen, jada, berarentzako lekurik.

"Bera etorri eta berehala konturatu nintzen etxe hartan ez zegoela, jada, niretzako lekurik"




Pakita Arrillaga Arrillaga

2016ko urtarrilaren 8an hil zen, 75 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Hermenegilda Zubiaurre San Martin

2015eko urtarrilaren 31n hil zen, 96 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome
Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

***Gureganako beti izan dozu
iribarra aurpegian,
irudi hori gordeko dogu
beti gure barrenian***

Zure familia




I. URTEURRENA

Jose Mari Salegi Arakistain

2015eko urtarrilaren 27an hil zen, 91 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urtarrilak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome
Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

***Erreza izan zen zu maitatzea.
Ezinezkoa, ordea, zu ahaztea.
Beti gurekin izango zara.***

Etxekoak



ikastolan

denok gara gu



ikastolenelkartea



elgoibar ikastola
www.elgoibarikastola.eus

Herritik sortu eta herriarentzat
Kooperatiba
Euskara eta euskal kultura
Ikasle euskaldun, eleanitz,
buru-askeak
Profesional trebatuak
Guraso inplikatuak.
Eredu propioa,



Horregatik, zu, hura,
zuek, haiek, gu, ni...
ikastolan, denok gara GU



2016-17 ikasturterako,
HH O2tik gora, izena emateko
epea irekita, urtarrilaren 25etik
otsailaren 5era



www.elgoibarikastola.eus



IKT-en heldutasun-maila
AUPERRATUA duen ikastetxea